



2019ko azaroaren 7a

ISABEL ETXEBERRIARI ELKARRIZKETA



Euskadi Literatura Sarien irabazlea Itzulpengintza atalean

BIOGRAFIA

Donostia, 1975.

Itzultzaile gisa lan egiteaz gain, egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Itzulpengintza irakasten die 18/ 20/ 22 urte inguruko ikasleei.

Argialetxe baterako egin zuen lan eta enpresa batean ere bestelako itzulpen motak egin ditu: enpresatarako txostenak, jatetxeetarako menuak, museoetarako esku-orriak, Osakidetzarako testuak...

1. Zaila izan al da saria lortzea? Zer sentitu zenuen saria lortzean?

Ez nuen uste saria irabaziko nuenik. Beste itzultzaileen lanak ere hor daude. Itzulpen onak egiten dituzte ere....

Nik ez dut ezer berezirik egin saria jasotzeko, ez nuen lana aurkeztu. Nire lana epaimahai batek aukeratu zuen saritua izateko.

Jaso nuenean poza sentitu nuen baina hasiera batean sustoa, ezustean harrapatu ninduelako. Banekien finalisten artean nengoela, baina urduri jarri nintzen burutik kendua nuelako gaia.

2. Ze itxura du sariak? Zerez egina dago?

Zein itxura duen ez dakit oraindik ez didatelako eman.

3. Saria lortu zenuenean, ospatu zenuen?

Oraindik ez dut ospakizun berezirik egin baina gustatuko litzaidake familiarekin ospatzea.

4. Marrazkilaria ere saritu al dute?

Nire liburuan ez dago marrazkirik. Dena den, beste sari bat ematen da ilustrazioak dituzten liburuen artean eta aurten Asisko Urmeneta izeneko marrazkilaria bati eman diote, "Aztihitza: Xahoren biografikoa" izeneko liburu batengatik.

5. Zenbat aldiz hartu duzu parte edo egon zara Euskadi Sarian? Beste sariren bat lortu duzu?

Aurten lehen aldia izan da Euskadi Sarian parte hartu dudana. Beste sari batzuk ere jaso izan ditut, baina txikitan: ipuinak, poemak eta abar.

ITZULPENGINTZA

1. Nola bururatu zaizu itzultzailea izatea? Zer ikasi duzu itzultzaile lana egiteko?

Itzultzaile izatera pixka bat nahi gabe edo kasualitatez iritsi naiz. Lehenik euskara irakasle nintzen, gero itzulpenak egiten hasi nintzen, ondo moldatzen nintzela ikusi nuen....

Itzultzaile izateko, gaur egun badira ikasketak hemen, Gasteizen. Baina nire garaian ez. Lehen, Bartzelonara, Granadara edo horrelako hirietara joan behar zen. Nik Euskal Filologia ikasi nuen.

2. Nola ikasten da itzulpenak egiten?

Itzulpenak egiten praktikatuz ikasten da eta lankideekin lan eginaz: elkarri galdetuz, elkarri lagunduz....

3. Ze izenburu du itzuli duzun liburuak? Zein hizkuntzatan zegoen eta zein hizkuntzatarara itzuli duzu?

Itzuli dudana liburuen izenburua oso luzea da '**Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak**'. Jatorrizko liburua ingelesez dago eta nik ingelesetik itzuli dut. Izenburua hau da: "Hateship, friendship, courtship, loveship, marriage". Idazlea kanadarra da, ingelesez egiten den eskualdekoa.

Nik euskarara itzuli dut baina hizkuntza askotara ere itzulita dago, eta nik nire itzulpena egitean gaztelerara, frantsesera eta italierara egindako itzulpenak ere eskura izaten nituen, kontsultak egiteko. Liburu honetako ingelesa ez zen oso zaila, orduan, errazagoa egin zait itzulpena baina beste batzuetan ez da hain erraza.

4. Zenbat egun behar izan duzu liburua itzultzeko? Egun bakoitzean zenbat orrialde itzultzen dituzu?

Itzulpen hau egiteak 3 urte inguru eraman dit, egunero lan pixka bat eginaz. Hasieran 2-3 ordu erabiltzen nituen lan honetarako. Epea gerturatzen joan den bitartean, berriz, 4-5 ordu. Asteburuetan ere lan egitea tokatu zait.

5. Non itzuli duzu liburua etxean edo lanean?

Itzulpena egiteko isiltasuna behar da kontzentratu ahal izateko. Horregatik batzuetan etxean baina beste batzuetan etxetik kanpo lan egin behar izan dut: nire gurasoen etxean, nire bikotearen gurasoen etxean, liburutegian, taberna batean... Bulego txiki bat etxetik gertu izatea gustatuko litzaidake bertan lan egin eta hobeto kontzentratu ahal izateko.

6. Zenbat urte zenituen lehenengo itzulpena egin zenuenean? Zenbat liburu itzuli dituzu?

Lehenengo itzulpena 30 urte inguru nituela egin nuen. 10-15 urte inguru daramat itzulpenak egiten.

Azken hau nire 3. itzulpena da. 400 orri inguru zituen liburuak. 9 ipuinez osatutako liburua da. Aurretik itzuli ditudan bi liburuek 300 bat orrialde zituzten. Bat neurologo batena zen eta bestea filosofo batena. Azken hau aspergarria egin zitzaidan.

Bestelako itzulpen motak ere badaude eta egin izan ditut: testu solteak, enpresatarako txostenak, jatetxe baterako menua, museoetako eskuorria, anbulategietarako kartelak... Itzultzaile bati denetarik itzultzea tokatzen zaio.

7. Umeentzako libururik itzuli al duzu?

Umeentzako libururik oraindik ez dut itzuli baina gogoia dut hori egiteko.

8. Norbaitekin egiten dituzu itzulpenak edo bakarrik?

Itzulpen lanak bakarrik egiten ditut. Zalantzak baldin baditut, beste itzultzaile lagunei galdetzen diet eta lan bat bukatzen dudanean beste itzultzaile bati ematen diot irakur dezan eta zuzenketak egin ditzan. Horrela egiten dugu lan gure artean.

9. Gustuko duzu liburuak itzultzea? Itzuli dituzun guztiak gustukoak izan al dituzu?

Nire lana, itzulpenak egitea, gustuko dut, erronka bat da. Lan hau nik aukeratu nuen baina nahi gabe, probatzen eta ondo ematen zitzaidala ikusirik. Lana bera baino gogorragoa da disziplina bat izatea. Gehien kostatzen dena hastea da. Gero, behin jarri ondoren....

10. Zure lana egiten duzunean, nekatzen al zara?

Sortzen duen nekea ez da fisikoa, burukoa baizik.

HIZKUNTZAK

1. Zenbat hizkuntza dakizkizu? Zeintzuk?

Euskara, gaztelera, ingelesa eta frantses pixka bat. Azken bien kasuan irakurtzen ondo moldatzen naiz, hitz egitea gehiago kostatzen zait. Frantsesetik oraindik ez dut itzulpenik egin.

2. Lan hau egiteko hizkuntzak oso ondo jakin beharko dira, ezta?

Inportanteena da zer hizkuntzatarra itzuliko duzun, horixe ondo ezagutzea. Euskarara itzuli nahi bada, euskara ondo jakin behar da, adibidez. Jendeak kontrakoa pentsatzen du, baina kanpoko hizkuntzak ezagutzea baino inportanteagoa da norberaren hizkuntza ondo ezagutzea.

3. Nola itzultzen dituzu liburuak hizkuntza batetik bestera?

Laguntza aldetik, lehen paperezko hiztegiak zeuden euskarri. Orain berriz, Internet dago.

Pantaila ezberdinak irekitzen ditut hiztegi ezberdinekin eta horrekin moldatzen naiz.

Zalantzak ditudanean beste itzultzaile lagunei galdetzen diet eta lana bukatutakoan beste norbaiti eskatzen diot irakur dezan akatsak baldin badaude zuzentzeko....

Mila esker, Isabel eta zorionak!

Astigarragako ikastolako LH4ko ikasle eta irakasleak.